


LAN INTERDIZIPLINARRA: TXANGOEN BIDEZ KONPETENTZIAK LANTZEN
2016/17 ikasturtea Gida Didaktikoa

IRAKASGAIAK

LEHEN HEZKUNTZA. 3 IKASTURTEA



KOORDINATZAILEA: Jose Mari Etxabe Urbieta

IRAKASLEAK:

- Iñaki Aldekoa Beitia (Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika)
- Mila Alvarez Urcelay (Gizarte Zientzien Didaktika)
- Iera Arrieta Kortajarena (Matematikaren Didaktika)
- Izaskun Baro Yubero (Matematikaren Didaktika)
- Josune Beldarrain Agirre (Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika)
- Oihana Barrutia Sarasua (Zientzia Esperimentalen Didaktika)
- Lidia Caño Pérez (Zientzia Esperimentalen Didaktika)
- Itziar Elorza Alday (Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika:Ingelesa)
- Jose Mari Etxabe Urbieta (Zientzia Esperimentalen Didaktika)
- Ainhoa Ezeiza Ramos (Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika)
- Koldo Jule Garai Bilbao (Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika:Ingelesa)
- Rafa Lopez Atxurra (Gizarte Zientzien Didaktika)
- Francisco Javier Ruiz Huici (Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika)
- Arkaitz Zubizarreta Cortadi (Didáctica de la Educación Corporal)
- Tomas Zubimendi Andonegi (Didáctica de la Educación Corporal)
- Arkaitz Zubiri Esnaola (Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika:Ingelesa)
- Ana Zuzuarregi Olasagasti (Zientzia Esperimentalen Didaktika)

Aurkibidea

1. Sarrera.....	3
2. Konpetentziak.....	4
3. Ikasle taldeen egitura.	6
4. Lan gidatua.....	7
5. Kronograma.....	8
6. Ebaluazioa.	9
6.1. Ebaluazio irizpideak.....	10
7. Eranskinak.....	11
7.1 Ikasle taldeen fitxa.....	11
7.2 1. Bibliografia. Oinarrizko bibliografia.....	11
7.2.2 Sakontzeko Bibliografia.....	11
7.2.3 Web orriak.....	12
7.3.1. Txostenaren formatu eta estilorako iradokizunak.....	12

1. Sarrera

Lan interdiziplinar hau Lehen Hezkuntza graduko 3. ikasturtean kokatzen da, aurreko irakasgaietan oinarritzko arloak eta moduluak jorratu ondoren. Ikasturte honetako irakasgai guztiekin lotura izango du.

“Txangoen bidez konpetentziak lantzen” izenburua duen proiektuan garatu beharreko lana Lehen Hezkuntzako kurtso zehatz bati zuzendutako irteera didaktikoa diseinatzea da, haren bidez arlo desberdinen konpetentziak era diziplinartekoan landuz.

Bere oinarria hauxe da:

- Txangoak, ibilaldiak, irteerak moduko praktikak errotuta daude eskola-kulturan eta ikasleentzat motibagarriak izateaz gain, ikasteko bidea zabaltzen dute.
- Errealitatea era orokortuan ikusteko edo lantzeko aukera ematen dute.
- Gaitasun ugari lantzeko aukera ere ematen dute eta hauek eremu profesionalarekin uztartu daitezke.
- Talde-lana eta lankidetzak bultzatzeko bide bat izan daiteke.
- 3. mailako irakasgai guztien ikuspuntuak (edukiak...) jasotzeko posibilitatea ematen du.

2. Konpetentziak. Graduko konpetentzia orokorrak eta modulo lanaren ikaskuntza emaitzak.

Graduko konpetentzia orokorrak

G001- DIZIPLINARTEKOTASUNA CURRICULUM-ARLOETAN

Lehen Hezkuntzako curriculum-arloak, dagozkien diziplinen arteko harremana, ebaluaketarako irizpideak eta dagozkien irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozeduren inguruko ezagutza didaktikoen edukia ezagutzea.

G002 - TALDE-LANEKO IRAKASKUNTZA-IRAKASKUNTZAREN DISEINUA

Irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuak diseinatu, planifikatu eta ebaluatzea, bai indibidualki eta bai zentroko beste irakasle eta profesional batzuekin elkarlanean ere.

G009 - GIZARTE-ERANTZUKIZUNA ETA IRAUNKORTASUNA

Etorkizun iraunkor bat lortzeko garaian, erantzukizun indibiduala eta kolektiboa balioestea.

G013 - KOMUNIKAZIO-KONPETENTZIAK

Euskara eta gaztelania eta, gutxienez, atzerriko beste hizkuntza bat menderatzea, hizkuntza egoki eta zuzen sortzeko eta ulertzeko gaitasuna frogatuz bere lanbidea hizkuntza anitzeko hezkuntza-testuinguru batean gauzatu ahal izateko, baina betiere, hizkuntzen nahiz kulturen dibertsitatea errespetatzeko jokabideak garatuz.

Modulo lanaren Ikaskuntza Emaitzak (Helburuak)

IE1.- Errealitatea elkarren artean erlazionatutako elementu-multzo gisa identifikatzea, aukera didaktikoak aztertzea, eta ondorioz berorren irakaskuntzarako jakintza-arlo desberdinak Lehen Hezkuntzarako jardueretan integratzea. (G001, G009)

IE2.- Taldeka Lehen Hezkuntzarako txango didaktikoa egiteko jarduerak diseinatzea eta garatzea (G002).

IE3.- Jarduerak euskaraz, gaztelania eta ingelesez era egokian ahoz eta idatziz adieraztea (G013)

3. Ikasle taldeen egitura

Lana taldeka egin beharko da eta talde bakoitzean gehienez lau ikasle egongo dira. Taldekide guztiek parte hartu behar dute lana egiterakoan eta talde bakoitzak bileren aktak egin behar ditu. Ikasle taldeek bete behar duten fitxa 1 eranskinean agertzen da.

4. Lan gidatua

Egoera problematiko: Zuzendaritzako bi kideren aurrean txango proposamena aurkeztera joan behar duzue. Horretarako, 15 minututan zuen azalpenak eman beharko dituzue, hau da, zuen txangoa azaldu behar diezue, maila (edo ziklo) jakin baterako izan ditzakeen abantaila guztiak azpimarratuz.

Hori dela eta egoera problematiko honen inguruan Lehen Hezkuntza Graduko 3. ikasturteko ikasle-talde bakoitzak hauxe egin behar du:

- Txango bat prestatu behar duzue, nahi duzuen leku, maila eta iraupena aukeratuz (gehienez egun osoko irteera izango litzateke).
- Txangoak interdiziplinarra izan behar du, beraz, irakasgai bakoitzetik gutxienez jarduera bat proposatu beharko duzue (jarduera bakoitza irakasgaiko hizkuntzan idatzita egon behar du). Irakasgaiak gidahonen hasieran agertzen dira. Jarduera izan daiteke txangoaren aurretik, bertan nahiz ondoren egiteko.
- Jarduera guztiakin, txangora ikasleek eramango luketen lan idatzia osatu beharko duzue.
- Ondoren, 15 minutuko ahozko aurkezpena prestatu beharko duzue (power point, poster,... baten laguntzaz).

Lanak bi atal hauek ditu:

1 atala. Abenduan entregatzeko lana: Gehienez egun bateko txangorako Lehen Hezkuntzako jardueren diseinua elaboratu behar da. Egun bateko txangoa denez jarduera kopurua ongi neurtu behar da.

Txangoaren aurretik, bertan ala ondoren ikasleekin garatu behar diren jarduerak diseinatu behar dituzue.

Jarduera hauek ondorengo baldintzak bete behar dituzte:

- A) Irakasgai bakoitzeko gutxienez jarduera bat diseinatu behar duzue.
 - B) Jarduera bakoitza irakasgaiari dagokion hizkuntzan idatzi behar duzue.
 - C) Jarduerak interdiziplinarrak izan daitezke. Kasu horretan, jardueran parte hartzen duten arloen irakasleei entregatu beharrekoak berdina izan behar du. Irakasle bakoitzak bere irakasgaiaren ikuspuntutik zuzenduko du jarduera.
- Diseinatutako jarduera(k) irakasgai bakoitzeko irakasleari entregatu behar diozue.
Bertan zehaztu behar duzue:
- 1) 5-10 lerroko txangoaren deskribapen sintetikoa (irakasgai guztientzat berdina)
 - 2) Jardueraren (en) deskribapena, gehienez 2 orrialdekoa (irakasleentzat zuzendua).
 - 3) Jarduera horrentzat edo hoientzat LHko ikasleei emango litzaiekeen bertsioa.

2 atala. Otsailean aurkezpenaren egunean entregatu behar da lana eta egin behar da aurkezpena.

2.1 *Lana:* Azala, aurkibidea, 1. Atala (deskribapena, LHko irakasleei zein ikasleei emateko jardueren bilduma) eta bibliografia.

2.2. *Aurkezpena:* 10-15 minututan txangoaren azalpena (ibilbidea, jarduerak,...). Irakaslearen eta irakaslearen ikuspuntua eman daiteke.

Lana egiteko bibliografia 1 eranskinean duzue.

LEHEN HEZKUNTZA GRADUKO 3. IKASTURTEKO MODULUA: KONPETENTZIEN LANKETA ESKOLAN

5. Kronograma

- Irailak 12-13: modulu lanaren aurkezpena egin 31 eta 32 taldeetan (talde bakoitzean irakasle bat arduratuko da).
- Irailak 30a baino lehen: taldeak osatu. Aurkezpena egin duen irakasleari bidali taldekideen zerrenda.
- Abenduak 2a baino lehen: jarduerak entregatu irakasle bakoitzari.
- Abenduaren 23a baino lehen lanak kalifikatuta egongo dira eta kalifikazioak Gorputz Hezkuntza eta bere Didaktikako irakasleei bidaliko zaizkie.
- Otsailak 20a baino lehen: Atzerriko hizkuntzako irakasleari dagozkion jarduerak entregatu.
- Otsailaren 20-24 asteko zehaztuko den egun batean: Lan idatzia aurkezpenaren egunean entregatu eta aurkezpena. Ez da klaserik egongo egun horretan.

Irakasle bakoitzak erabakiko du lan modularri dagozkion orduak klasean nola erabili

HILABETEA	IRAILA				URRIA				AZAROA				ABENDUA			URTARRILA		OTSAILA		
ASTEAREN ZENBAKIA	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20
MODULU LANAREN AURKEZPENA																				
TALDEAK OSATU. KOORDINATZAILEARI BIDALI.																				
TUTORETZA SAIOAK IRAKASGAI GUZTIETAN ATZERRIKO HIZKUNTZA EZIK																				
IRAKASLE BAKOITZARI 1 ATALA ENTREGATU																				
IRAKASLE BAKOITZAK DAGOZKION JARDUERAK EBALUATU																				
ATZERRIKO HIZKUNTZA SAIOAK.																				
ATZERRIKO HIZK. IRAKASLEARI ENTREGATU DAGOZKION JARDUERAK																				
LAN IDATZIA ENTREGATU ETA AURKEZPENAK																				

6. Ebaluazioa

1. atalaren eta 2. atalaren puntuazioan arlo bakoitzak 0 — 1 artekoa izango da. 6.1 ataleko ebaluazio matrizea aplikatuko da eta irizpideen batezbestea egingo da.

Abenduan entregatutako jarduerak ezingo dira hobetu. Abenduaren aurretik irakasgai bakoitzeko irakasle bakoitzari galdetu behar zaio jarduerak ongi planteatuta dauden ala ez.

Irakasgai bakoitzean modulu lanari emango zaion puntuazioa 0,5 eta 0,75 ECTS kredituei dagokiona izango da (6 kredituko eta 9 kredituko irakasgaietan). Gehienez %10 izango da.

Erasmus/Séneca eta beste mugikortasun programetan dauden ikasleek ez dute lan modularra egin behar.

Aurkezpenak irakasgai ezberdinetako bi irakaslek ebaluatuko dituzte.

Ikasle-talde bakoitzean aurkezpena ikasle batek egingo du, zozketaz aukeratuko dena.

Aurkezpenaren ondoren irakasleren batek galderaren bat egin dezake, eta taldeko edozein kidek erantzun diezaioke.


Ez gairatzen lanari dagokion puntuazioaren galera dakar.

Kalifikazioa horrela kalkulatu da:

Ikasleak Izen- abizenak	Gorputz Hezkuntz aren Dka	Matematika eta bere Dka II	Natura eta Dka II	Gizarte Zientziak eta Dka II	Hizkuntza eta Literatura	Atzerriko Hizkuntza	Bataz beste a	Azken Nota
Jarduerak								
Lana Aurkezp.								



1.go lauhilekoan betetzeko. Gorputz hezkuntzako irakasleak urtarrilerako nota jartzeko, 1.go lauhileko bost irakasgaien jardueren noten batezbestekoa egin beharko du



2. Lauhilekoan betetzeko. Gainerako irakasleek, taulako "azken nota" atalean jarritakoa emango diote lan interdiziplinarrari

6.1 Ebaluazio irizpideak

1 atala	Ez ditu jasotzen edo eskas jasotzen ditu irizpidearen atalak (0)	Irizpidearen atalak jasotzen ditu, akatsak ditu eta hobetu daiteke. (0,5)	Irizpidearen atal gehienak ongi jasotzen ditu (0,75)	Oso ongi jasotzen ditu irizpidearen atal guztiak (1)
1. HIZKUNTZAK				
2. Hizkuntzen erabilera zuzena da (ortografia, sintaxia...) eta akademikoa da (zehaztasuna, sakontasuna, argudioak...)				
2. JARDUERAK				
2.A. Joan aurretik, bertan eta ondoren garatzeko jarduerak planifikatu dituzte eta azaldu dituzte (kopurua, egokitasuna,...).				
2.B. Aurretik, bertan eta ondoren jarduera egokiak (dagokion testuingurua, jakintza eta ikasleria kontutan izanik) eta originalak (sorkuntza maila, disziplinarrekotasun maila) proposatu dituzte eta garatu dituzte.				
2 atala	Ez ditu jasotzen edo eskas jasotzen ditu irizpidearen atalak (0)	Irizpidearen atalak jasotzen ditu, akatsak ditu eta hobetu daiteke. (0,5)	Irizpidearen atal gehienak ongi jasotzen ditu (0,75)	Oso ongi jasotzen ditu irizpidearen atal guztiak (1)
1. AURKEZPENEA: TXANGOIA ONGI AZALDU				
1.A Azalpenen argitasuna, komunikazio gaitasunak ongi erabili dituzte eta egindako galderak ongi erantzun dituzte.				
1.B. Irteera egiteko gune interesgarriak hautatu dituzte, jarduera egokiak proposatu dituzte eta argudio esanguratsuak eman dituzte (informazio edo ebidentziaren balio soziokulturala, balio zientifikoa, balio didaktikoa ,...)				
2. LAN IDATZIA (AZALA, JARDUERAK ETA BIBLIOGRAFIA)				
2.A. Joan aurretik, bertan eta ondoren garatzeko jarduerak planifikatu dituzte eta ongi azaldu dituzte (edukietan oinarrituta, marrazki eta argazkiekin osatua, txukuntasuna,).				
2.B. Aurretik, bertan eta ondoren jarduera egokiak (dagokion testuingurua, jakintza eta ikasleria kontutan izanik) eta originalak (sorkuntza maila, disziplinarrekotasun maila) proposatu dituzte eta garatu dituzte.				
2.C. Era ezberdinetako iturburuak erabiltzen dituzte (liburuak, aldizkariak, web orrialdeak) emandako aipamen ereduak jarraituz.				

7. Eranskinak

7.1 Ikasle talden fitxa

LEHEN HEZKUNTZA 3. IKASTURTEA 16/17 IKASTURTEA

31 GA1	EKIPOAREN E-MAIL BAT:
31 GA2	EKIPOAREN TELEFONO BAT:
32 GA1	EKIPOAREN IZENA (aukerazkoa):
32 GA2	

DIZIPLINARTEKO PROIEKTUA/LANA:

IZEN/ABIZENAK ALFABETIKOKI

	IZENA:
	*ABIZENAK:
	E-MAILA:
	OHARRAK:

	IZENA:
	*ABIZENAK:
	E-MAILA:
	OHARRAK:

	IZENA:
	*ABIZENAK:
	E-MAILA:
	OHARRAK:

	IZENA:
	*ABIZENAK:
	E-MAILA:
	OHARRAK:

	IZENA:
	*ABIZENAK:
	E-MAILA:
	OHARRAK:

7.2. 1. Bibliografia. Oinarrizko bibliografia

Jakingarriak aldizkarian artikulua ugarri dituzue, hala nola Sara Aranburu eta Idoia Mantxolarena, I. Ramirez Okarizenak, J. Sánchez Garcíarenak edo Xabier Agirrearenak.

<http://www.mondragon.edu/es/actualidad/revistas/jakingarriak/jakingarriak>

Tonucci, F. (2013). *Haurren hiria*. Txatxilipurdi elkarteak. Arrasate.

Wass S. (1992) *Salidas escolares y trabajo de campo en la Educación Primaria*. Madrid: Morata.

[<http://books.google.es/books?id=il2FQq2-KSUC&printsec=frontcover&hl=es#v=onepage&q&f=false>].

Web orriek eta udal eta EHU/UPVko liburutegiak dituzten baliabideak.

7.2.2 Sakontzeko Bibliografia

- AAVV Itinerario didáctico interdisciplinar por Mazarrón y su bahía. [Kontsulta data: 2016ko uztailaren 13a]. Hemen eskuragarria: <http://www.educarm.es/templates/portal/ficheros/websDinamicas/7/presentacin_itinerario_mazarrn.pdf>
- AAVV Itinerarios didácticos IES Alquibla. [http://www.iesalquibla.net/itinerarios/Itinerario2_deportivas.html]
- Beas Jiménez M., Rodríguez Prados F., Martínez Moreno A. J. (2009). El entorno natural y las actividades físicas en el medio natural como base para un proyecto educativo multidisciplinar. *Espiral. Cuadernos del profesorado*. Vol 2, nº 4. [Kontsulta data: 2016ko uztailaren 13a]. Hemen eskuragarria: <<http://www.didacticasespecificas.com/files/download/3/articulos/27.pdf>>
- Contreras Ruiz, J., Contreras Gómez, A., Román Lorente (2005). Las actividades en el medio natural. Una propuesta interdisciplinar para educación primaria. <http://www.efdeportes.com/> Revista Digital - Buenos Aires – Año 10 - Nº 85 – [Kontsulta data: 2016ko uztailaren 13a]. Hemen eskuragarria: <<http://www.efdeportes.com/efd85/medion.htm>>
- Delgado, E. eta Alario, M. T. (1994). La interacción fuera del aula: itinerarios, salidas y paseos. *Tabanque: Revista Pedagógica*, 9, 155-178. [<http://uvadoc.uva.es/bitstream/10324/1907/1/La%20interacci%c3%b3n%20fuera%20del%20aula.%20itinerarios%2c%20salidas%20y%20paseos.pdf>]
- Fernández Domínguez M. A. (2007). Itinerario didáctico interdisciplinar por instalaciones energéticas de Galicia. *Educación enerxética e desenvolvemento sostible*. Grupo de Educación Ambiental Enerxética del Instituto de Ciencias de la Educación de la Universidad de Santiago de Compostela [Kontsulta data: 2016ko uztailaren 13a]. Hemen eskuragarria: <http://www.magrama.gob.es/es/ceneam/articulos-de-opinion/2007_12mafernandez_tcm7-53069.pdf>
- Guisasola J. eta Morentin M. (2007). ¿Qué papel tienen las visitas escolares a los museos de ciencias en el aprendizaje de las ciencias? Una revisión de las investigaciones. *Enseñanza de las ciencias*, 2007, 25(3), 401–414 [Kontsulta data: 2016ko uztailaren 13a]. Hemen eskuragarria: <<http://ddd.uab.cat/pub/edlc/02124521v25n3p401.pdf>>
- Hernandez Troyano E. (2009) Las salidas escolares. Temas para la educación. *Revista digital para profesionales de la enseñanza*, nº 5. <http://www2.fe.ccoo.es/andalucia/docupdf.aspx?d=6061&s=>
- Jaen M. eta Bernal J. (1993) Integración del trabajo de campo en el desarrollo de la enseñanza de la geología mediante el planteamiento de situaciones problemáticas. *Enseñanza de las Ciencias de la Tierra*, vol 1, nº 3, 153-156 [<http://www.raco.cat/index.php/ECT/article/view/88121/140890>]
- Luque Revuelto R. y González Requena R. (2012). *Córdoba, ciudad patrimonio. Itinerarios didácticos. Experiencias educativas en la E.S.O.* [Kontsulta data: 2016ko uztailaren 13a]. Hemen eskuragarria:

<http://revistaeco.cepcordoba.org/index.php?option=com_content&view=article&id=148:cordoba-ciudad-patrimonio-itinerarios-didacticos-experiencias-educativas-en-la-eso&catid=14:articulos&Itemid=60>

- Molina S. (2012). El museo “La casa encantada” de Briones en la enseñanza de la historia: propuesta para una salida escolar para educación primaria. Contextos educativos, 131, 71-82 [Kontsulta data: 2016ko uztailaren 13a]. Hemen eskuragarria: < dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/3395417.pdf > [Nieto, J. M. (1990) *Como aprender y divertirse en las visitas y excursiones escolares*. Madrid: Editorial Escuela Española. [Kontsulta data: 2016ko uztailaren 13a]. Hemen eskuragarria: < http://www.csi-csif.es/andalucia/modules/mod_ense/revista/pdf/Numero_32/AUXILIADORA_CASTRO_DIOS_01.pdf >
- Niño Vítores, M. C. (2012) *Las Salidas escolares en la Educación Primaria*. Trabajo fin de Grado. Universidad de Valladolid. [https://uvadoc.uva.es/bitstream/10324/1845/1/TFG-L%2056.pdf]
- Sánchez Ferrezuelo E. A. (2010) Innovación e interdisciplinariedad en los itinerarios didácticos de ciencias sociales. *Revista Electrónica de Didácticas Específicas*, nº 3, pp [Kontsulta data: 2016ko uztailaren 13a]. Hemen eskuragarria: < <http://www.didacticasespecificas.com/files/download/3/articulos/27.pdf> >
- Tejada, L.(2009) Las salidas un recurso para el aprendizaje en Educación Infantil. *Innovación y experiencias educativas*, 14. [Kontsulta data: 2016ko uztailaren 13a]. Hemen eskuragarria: < http://www.csi-csif.es/andalucia/modules/mod_ense/revista/pdf/Numero_14/LIDIA_TEJADA_1.pdf >
- Unesco Etxearen baliabideak. [Kontsulta data: 2016ko uztailaren 13a]. Hemen eskuragarria: < http://www.unescoetxea.org/ext/futuros/es/pdf/theme_d_pdf/mod24.pdf >

7.2.3. Web orriak

- Actividades fuera del aula. Interacción con el entorno. [Kontsulta data: 2016ko uztailaren 13a]. Hemen eskuragarria: <<http://www.slideshare.net/estherfl/actividades-fuera-del-aula>>
- Diziplinartekotasuna Unesco etxean lantzen dute [http://www.unescoetxea.org/ext/futuros/es/theme_b/mod06/uncom06t01.htm]

7.3 1. Txostenaren formatu eta estilorako iradokizunak

- Gradu amaieraren gidaliburua dokumentuaren 19, 20 eta 21. orrialdietan dituzue. [Kontsulta data: 2016ko uztailaren 13a]. Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea. Hemen eskuragarria: <http://www.irakasleen-ue-donostia.ehu.es/p222-content/eu/contenidos/informacion/tfg/eu_tfg/adjuntos/GRADU%20AMAIERAKO%20gida%20orokorra.pdf>